

EZ OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2009ko urriaren hamabostean gaueko bederatzia direnean, bildu dira, Ez Ohiko Udalbatzarra ospatzeko, ondoko Korporatiboak:

IÑAKI OIARTZABAL ZINKUNEGI, Alkate-Lehendakaria.

BITTOR ASTIGARRAGA ZUGASTI, Zinegotzia.

LUIS BERRONDO LANCETA, Zinegotzia.

LUIS ARZALLUS AMENABAR, Zinegotzia.

JOSE LUIS ALBISUA LASA, Zinegotzia.

JOSUNE ARRUTI EIZAGIRRE, Zinegotzia ez da bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik.

JOSEBA IÑAKI LABAKA BERISTAIN, Zinegotzia ez da etorri.

Idazkari lanetan, Udaleko Bitarteko Idazkari kontuhartzailea den MARIA ETXEBERRIA URRETABIZKAIA.

Alkateak hasiera eman dio udalbatzarrari ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

ERREZILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA EMATEKO ESLEIPENA PROZEDURA IREKI ETA LEHIAKETA BIDEZ ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN AGIRIAK ONARTZEAREN PROPOSAMENA.

Idazkariak Errezilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa aratuko duen baldintza ekonomiko administratiboan eta teknikoan berri ematen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, Errezilgo Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa emateko baldintza ekonomiko administratibo eta teknikoak onartuta geratzen dira.

**BIGARREN PUNTUA:
ERREZILGO HERRI ZENTROKO EGUNEKO ZENTROAREN
FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.**

Idazkariak Errezilgo herri zentroko eguneko zentroaren funtzionamendu araudiaren berri ematen du. Jarraian Idazkariak aipatzen du, araudi honen haserako iragarkia Boletinean argitaratuko dela 30 egunez interesatuek alegazioak egiteko eta alegaziorik ezean, inongo akordiorik gabe araudia behin betikotzat onartuko da.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

- 1.- Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta , Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
- 2.- Abstentzioak: ez dago.
- 3.- Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, Errezilgo Herri Zentroko Eguneko Zentroaren funtzionamendu araudiaren aldaketa onartuta geratzen dira.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta laurden direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.

Alkateak